

# BASES IMPULSA 2ª EDICIÓN

## A. ZER DA IMPULSA?

Podemos jendearen instrumentu bat da, jendearentzat eta jendeak egina, etengabe eraikitzen ari den instrumentua eta hiritargoaren bizi baldintzak eta bizi garen ingurunea hobetuko dituen gizarte aldaketa bat sortzea du helburu. Horregatik, Podemos-en helburu berak defendatzen dituzten proiektu ekintzaileen alde apustu egiten dugu, eskura dauzkagun bide guztiak erabiliz.

IMPULSA, gizartera zuzenduta dauden proiektu ekintzaileen garapenean laguntzeko jaio da. Podemos-ek, balorazio onenak izan dituzten proiektuei diru-laguntza eskaintzen dizkie, eta laguntzaile berrientzat proiektuak irekitzeko aukera Podemos-en Talentu Bankua erabiliz. eskaintzen duen laguntza. Era berean, Podemos-en Zirkuluak irabazi duten proiektuekin laguntzea indartuko da maila lokalean, lurraldeko gizarte eragile desberdinekin sareak eta sinergiak sortzeko helburuarekin.

IMPULSA proiektuaren laguntza ekonomikoa Podemos-en kargudun hautatuen soldaten gaineratikotik dator, zeinek --jende arrunta izatearen eta politikaz gizartearentzako zerbitzu bat egitearen konpromisoa dutenek-- soldata hiru aldiz gutxiengo soldataren muga dute. Aldizka banatzen den funts komun bat sortzeak, proiektu handiak eta lurralde mailako ekimenak finantzatzea ahalbidetzen digu.

## B. DEIALDIAREN HELBURUA

Deialdi honen helburua zuzenbidezko, berdintasunezko eta demokratikoago izango den gizarte bat sortzea bilatzen duten ekimenak, gizarte-ekintzak eta proiektuak bultzatzea du helburu, Estatu mailan edo nazioarte mailan, ondorengo sailetan:

- Artea eta kultura.
- Hezkuntza eta berdintasuna.
- Gizarteratzea.
- Osasuna eta kirola.
- I+G+b eta teknologia berriak.

- Ingurumena.
- Gizarte-ekonomia.
- Beste batzuk.

IMPULSA berpizten jarraituko du aldian-aldiko edizio batzuen bitartez. Edizio bakoitzean, proiektu motak eta emango zaien sariaren kopurua aldatu ahal izango dira.

### **C. EKARPEN EKONOMIKO OROKORRA**

Bigaren edizio honetan, 300.000€ko aurrekontua egongo da (ikusi I. eranskina), kopuru berdinetan banatuak izango direnak hiru kategorien artea: IMPULSA zure herrialdea, IMPULSA zure ingurunea eta Podemos IMPULSA. Aurrekontuaren osotasuna banatzen baldi ez bada, soberakina hurrengo edizioetarako gordeko da. Jarraian, kategoria bakoitzaren baldintzak eta xehetasunak zehaztuko dira:

# 1. KATEGORIA IMPULSA 1: BULTZATU ZURE HERRIALDEA

## 1. HELBURUA

Kategoria honetatik gizarte garapenari lagundu eta gizarte zuzenago, berdintsuago eta demokratikoago baten alde aurrera egiteko saiatuko diren Estatu mailako bi proiektu sustatu nahi dira. Ekintza eremua lokala izan daiteke, baina, proiektuaren ezaugarriengatik, Estatu mailan epe luzera oihartzuna izatea gomendagarria da. Proiektuak Estatu mailan lehiatuko dira.

## 2. LEHENTASUNEZKO ILDOAK

Aurkeztuko diren proiektuak deialdiaren helburura erantzun beharko diote. Gainera, ondorengo gaien bat edo bitan (gehiengoz) kokatu beharko dira:

1. Artea eta kultura.
2. Hezkuntza eta berdintasuna.
3. Gizarteratzea.
4. Osasuna eta kirola.
5. I+G+b eta teknologia berriak.
6. Ingurugiroa.
7. Gizarte ekonomia.
8. Beste batzuk.

Era berean, Podemos-etik bilatzen da deialdi honetara aurkeztu diren proiektuak bete behar dutela:

1. Hiritar parte-hartzea sustatu.
2. Balioen hezkuntza sustatu.

3. Gizarte bazterketa arriskuan dauden pertsonen bizi baldintzak hobetu.
4. Emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatu.
5. Eredu ekonomiko lokal jangarri bat sustatu.

### **3. KATEGORIA HONENTZAKO EKARPEN EKONOMIKOA**

Bakoitzak 50.000€rainoko ekarpen ekonomikoa izango duten proiektu bi sustatuko dira estatu mailan.

### **4. KATEGORIA HONETAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK**

Kategoria honetan parte hartu ahalko dute hurrengo baldintzak betetzen dituzten erakundeak:

1. Legez, helburu sozialak jarraitzen dituzten irabazirik gabeko erakunde giza sortuak egotea.
2. Dagozkien erregistroan izena emanda egotea.
3. Estatu Espainiarrean helbideratuak egotea eta bertan garatzeko proiektuak aurkeztea.
4. Lan eta zergen betebeharrak jakitun egotea.
5. Proiektua aurrera eramateko ahalmen tekniko eta giza ahalmena frogatzea: erakundea eta bultzatzaileak esturktura eta ahalmen nahikoa daukate aukeratutako proiektua kudeatzeko, honen bideragarritasuna bermatuz.
6. Informazio berriztua duen web-orrialde, blog edo antzerakoa izatea.
7. Ezingo dira IMPULSA proiektuaren bigarren deialdi honetara aurkeztu aurreko deialdian garaile atera ziren erakundeak.
8. Laguntza eskatzen duten erakundeek IMPULSA-ko Talde Teknikoak onartutako proiektuen segimendua egingo dutela ezagutu eta onartzen dute, eta onartutako proiektuaren garapenari buruzko edozein informazio emateko prest daudela ere.

## **5. BETEKIZUN FORMALAK ESKAEREN AURKEZPENERAKO**

Eskaeraren aurkezpena soilik egin daiteke online. Eskatzaileek <http://podemos.info/impulsa/> orrialdean aurkitzen den formularioa bete beharko dute, eta, derrigorrez, plataforma horretan hurrengo dokumentazioa erantsi:

1. Proiektuaren aurkezpenaren bideo edo argazkia eta 600 karaktere baino gutxiagoko (tarteekin) deskribapen labur bat, adierazita agertu behar direnak gainontzeko dokumentazioarekin batera hautapen prozesuan.
2. Zirkulu, Hiritar Kontseilu edo Idazkaritza Nagusi baten bermea. Podemos-eko organo bakoitzak beste ekimen batzuk bermatzeko gehieneko bostekoa da.
3. Erakunde eskatzailearen Identifikazio Fiskalaren Txartela.
4. Erakunde eskatzailearen izen-ematea berezko erregistroan.
5. Erakunde eskatzailearen Estatutuen kopia, behar bezala erregistratuak.
6. Proiektuen gestioetan erakundea ordezkatzeko duen pertsonaren IFZa.
7. Proiektua aurkeztean, erakundea betebeharrak fiskalen jakitun dela frogatzen duen Zerga Agentziaren agiria.
8. Proiektua aurkeztean, erakundea lan betebeharrak jakitun dela frogatzen duen Gizarte Segurantzaren agiria.
9. Erakundeak urte bat baino lehenagoko luzera izan ezker, hurrengo ere erantsiko da:
  - 9.1. Erakundeak azken ekitaldian izan dituen jardueren memoria.
  - 9.2. Erakundearen azken ekitaldiaren urteko kontuak.

## **6. PROIEKTUAK BALIOESTEKO IRIZPIDEAK**

1. Proiektuak balioesteko irizpideak hauek dira:
  - 1.1. Aurkeztutako proiektua eta erakunde eskatzaileak, oinarri hauetan agertzen diren irizpide eta baldintza guztiak betetzen dituzte eta ez dute Podemos-en Kode Etikoa hausten ezta Podemos-en ildo politiko-estrategikoaren aurka egiten.
  - 1.2. Proiektuaren justifikazioa beharren identifikazio objektiboan oinarrituta daude.
  - 1.3. Bideragarritasun tekniko nabarmen geratzen da proiektuan azaldutako helburuen, emaitzen eta atalen koherentzia eta elkarrekikotasuna ikusita.

- 1.4. Aurrekontua bere partida guztietan zehaztua dago, helburuekin bat dator eta aurreikusitako ekintzekin doitua.
  - 1.5. Erakunde eskatzailea proiektua aurrera eramateko gaitasuna dauka bere esperientzia, kudeaketa ahalmen eta baliabideen erabilgarritasunaren arabera.
  - 1.6. Segimenduaren diseinua eta proiektuaren ebaluazioa zehatza eta koherentea da.
  - 1.7. Jasangarritasuna: proiektuaren diseinuak, epe ertain edo luzera helburuen jasagarritasuna ahalbidetzen ditu, IMPULSA laguntzatik aparte.
2. Proiektuen ezaugarriei buruz honako gomendioak iradokitzen dira:
    - 2.1. Ikuspegi eta betearazpenari begira, proiektuak izaera berritzailea izatea gomendatzen da.
  3. Proiektuak genero eta ingurumen ikuspuntuak kontuan izatea gomendatzen da.

## **7. GARRANTZITSUA**

IMPULSA-tik ordaingarriak diren gastuak proiektua aurrera eramateko egiten diren ekimenak bakarrik izango dira.

Beraz, IMPULSA-rekin ordaindu ezingo diren gastuak:

1. Erakunde baten mantentzea eta funtzionamendu gastutzat soilik suposatzen duten proposamenak (erakunde eskatzailearen egoitzaren ohiko alokairua, ura, telefonoa, korrontea, eta abar), bai eta euren ezohizko gastuetarako (obrak egin, ohiko egoitzarentzat ekipamenduak erosi, ...).
2. Profesionalen edo pertsonala kontratatzeke soilik egiten diren proposamenak.
3. Proiektuaren garapenarekin erlaziorik ez daukaten talde arduradunaren dietak, egonaldiak eta bidaiak ordaintzeko.
4. Zorren ordainketa edo edozein operazio finantzarioen amortizazioa.

## **8. PROIEKTUAK AURRERA ERAMATEKO EPEA**

Derrigorrezkoa izango da diru laguntza aurkeztutako proiektuan inbertitzea gehienekoz hamabi hilabeteren<sup>\*1</sup>, buruan, eta honen hasierako epea, gehienekoz, lehenengo diru-sarrerara jaso eta hilabete bat beranduago.

Ezingo dira deialdiaren erresoluzioaren aurrekoak ezta hitzarmenaren amaieraren ostekoak diren gastuak egotzi.

---

**1** Ezohiko kasuetan, eta justifikagarria izanik, proiektu baten iraupena luzatu ahalko da.

## 9. PROIEKTU IRABAZLEEN HAUTAPENERAKO SISTEMA

### Lehenengo fasea: aurkezpena eta ebaluazioa (Irailaren 8tik 22ra).

IMPULSA-ko Talde Teknikoaren bermearekin, Berme Demokratikoen Komisioak, Hiritar Kontseilu Estatala Podemos-en Senatariekin batera, aurkeztutako proiektuak baloratuko dira honako oinarrien irizpideei jarraituz eta, gehiengoz, lau proiektuko aurretiko sailkapena egingo dute. Aurretiko hautapenen emaitzak ondorengo web-orrialdean aurkeztuko dira: <http://podemos.info/impulsa/>.

### Bigarren fasea: bozketak (Urriaren 13tik 18ra).

Bozkatzeko epe bat irekiko da, Podemos-en izena emanda dauden pertsonak aurretik aukeraturako lau proiektuetatik bi irabazle aukeratu dezaten.

### Hirugarren fasea: emaitzak (Urriaren 22a).

Bozketen emaitzak hurrengo web-orrialdean begiratu ahalko dira: <http://podemos.info/impulsa/>.

Erakunde eskatzaileekin posta elektronikoaren bidez harremanetan jarriko dira. Deialdiko epe guztian zehar gomendatzen da posta elektronikoa sarritan begiratzea.

Deialdiaren ebazpena apelaezina izango da.

## 10. EMANDAKO LAGUNTZAREN FORMALIZAZIOA

1. Sarien ebazpena behin jakinarazita, 25M Institutuak eta irabazi duten bi proiektuen erakunde aurkezleek, honako oinarriei eta indarrean dagoen legediari atxikituta egongo den lankidetzaren hitzarmen bat sinatuko dute.
2. Dokumentu honetan, bi parteen eskubide eta betebeharrak zehaztuko dira, eta hurrengo atalak:
  - 2.1. Proiektuaren hasiera eta amaierako epea.
  - 2.2. Jasotako diru-laguntzaren kopurua.
  - 2.3. Fakturak egozteko epea.
  - 2.4. Ordaintzeko modua.
  - 2.5. Proiektuaren jazarpena.
3. IMPULSA 1 kategorietako proiektu irabazleek laguntza ekonomikoaren %50 jasoko dute, gehiengoz, sei hilabeteko epea, bozken emaitzak argitaratuta eta lankidetzaren hitzarmena sinatuta dagoen egunetik hasita. Gainontzeko ordaina bi zatitan egingo da:

lehenengoan, osotasunaren %40 emango da proiektuaren betearazpenaren seigarren hilabeteren bitartean, behin IMPULSA-ko Talde Teknikoaren bidez erdiko egoeraren txostena jasota eta ebaluatua, eta lehenengo diru-sartze gastuei atxikituta. Gainontze-ko %10 emango da behin proiektuaren memoria eta gastuen justifikazioa aurkeztuak eta gaindituak egonda.

4. IMPULSA-ko Talde Teknikoak eta oinarri hauetan eskatzen diren dokumentazioak ez aurkeztekotan, edo memoria aurkeztutako proiektuarekin bat ez etortzekotan, erakunde eskatzaileek eta arduradun diren pertsonak jasotako laguntza ekonomiko osoa bueltatu beharko dute.
5. Hiritar Kontseiluek, Ekintza Parte-hartzaileko Taldeek eta Zirkuluek eragile desberdinen jarduerak erraztuko dizkiete, eta, Podemos-eko Parte-hartze Talde Estatalak eskatzen dituen kasu espezifikoetan, aldizkako ebaluazio talde bat sortuko da kasu horiek izango duten eboluzioari buruz gardentasunez berri emateko.



## II. KATEGORIA IMPULSA 2: ZURE INGURUA BULTZATU

### 1. HELBURUA

Kategoria honek Espainia mailako proiektuak eta atzerriko proiektu bat bultzatzeko zuzenduta dago, helburua gertuko ingurua eraldatzea eta gizarte justu, berdina eta demokratikoa-  
go bat lortzea izanik.

Gainera, udal mailan mobilizazioa eta giro konstruktiboa sustatu nahi da, beren lurraldetako arazoak aurkitzeko pertsonak batuz eta kolektiboki irtenbideak bilatuz.

### 2. LEHENTASUNEZKO KONTUAK

Aurkezten diren proiektuek deialdiaren helburuarekin bat egin beharko dute. Horrez gain, hurrengo gaietako bat (edo bi gehienez) landu beharko dituzte:

1. Artea eta Kultura
2. Hezkuntza eta Berdintasuna
3. Gizarteratzea
4. Osasuna eta Kirola
5. I+G+b eta Teknologia berriak
6. Ingurumena
7. Ekonomia Soziala
8. Beste batzuk

Atzerriko proiektuei dagokienez, hauen onuradunak emigratzaile espainolak izan behar dira, eta bai herritartasun espainola bai atzerritarra duten pertsonak aurkeztu ahalko dute. Gaia emigrazioa bera izango da.

Era berean, Podemos-etik kategoría honetan aurkeztutako proiektuek hau bete dezaten bilatzen da:

1. Proiektua garatuko den udalean partaidetza bultzatzea.
2. Balioen hezkuntza sustatzea.
3. Gizarte-bazterketan egoteko arriskuan dauden pertsonen bizi-baldintzak hobetzea.
4. Emakume eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzea.
5. Udalerako eredu ekonomiko iraunkorragoa sustatzea.

### **3. KATEGORIA HONETARAKO EKARPEN EKONOMIKOA**

Guztira 33 proiektu bananduko dira autonomia erkidegoetatik, bakoitzean gutxienez bost proiektu badaude. Autonomia erkidego batean balioztatutako bost proiektu ez badaude, beste autonomia bateko proiektuekin batuko dira eta bozketa berean lehiatuko dira. Ekarpén ekonomikoa 3.000€-koa da, gehienez jota.

### **4. KATEGORIA HONETAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK**

Kategoria honetan, hurrengo baldintzak betetzen dituzten irabazi-asmorik ez duten erakunde edo formalki erakunde baten parte ez diren pertsonak parte har dezakete:

1. Erakundeek interes soziala bilatu behar dute eta legalki irabazi-asmorik ez duten erakunde bezala egon behar dira.
2. Erakundeek dagokien erregistroan inskribaturik egon behar dira.
3. Atzerrian aurkezten ez duten erakundeak Espainian helbideratuta egon behar dira, eta hor garatzen den proiektu bat aurkeztu behar dute.
4. Erakundeek egunean izan behar dituzte betebeharrak fiskal eta lan-kontuei dagozkienak.
5. Formalki erakunderik osatzen ez duten pertsonak aurkezten badira, saria irabaztekotan elkarte batean bihurtzeko konpromisoa hartu behar dute.
6. Salbuespen bezala, eta ager daitezkeen arazo burokratikoak direla eta, atzeritik aurkezten diren pertsonak ez dute elkarte bat osatzeko betebeharra izango.
7. Lehen edizioa irabazi zuten erakundeek ezin izango dira honetan aurkeztu.

8. Eskatzaileek ezagutzen eta onartzen dute IMPULSA-ko Talde Teknikoak onartu diren proiektuen garapena jarraitzea eta eskatuko den informazioa luzatzeko konpromisoa hartzen dute.

## **5. ESKAERA AURKEZTEKO BALDINTZA FORMALAK**

1. Aurkezpenaren eskaera soilik online egingo da. Eskatzaileek <http://podemos.info/impulsa/> web orrian dagoen formularioa bete behar dute eta plataforma horretan hurrengo agiriak aurkeztea:
  - 1.1. Proiektuaren aurkezpenaren bideo edo irudi bat eta 600 karaktereak (hutsuneak barne) gainditzen ez duen deskribapen laburra. Hautatzeko prozesuan gainerako dokumentazioarekin agertuko da.
  - 1.2. Zirkulu, Herritar Kontseilu edo Idazkaritza Nagusia baten abal bat. Podemos-eko atal bakoitzak gehienez jota bost abal eman ahalko ditu.
  - 1.3. Elkartea sortuta egotekotan:
    - 1.3.1. Identifikazio Fiskalaren Txartela
    - 1.3.2. Dagokion erregistroaren inskripzioa
    - 1.3.3. Erregistratutako erakundearen estatuen kopia bat
    - 1.3.4. Zerga Agentziaren ziurtagiria, non proiektu aurkezterakoan betebeharrak fiskal guztiak egunean daudela ziurtatzen den
    - 1.3.5. Gizarte Segurantzaren ziurtagiria, non proiektu aurkezterakoan lan-betebeharrak guztiak egunean daudela ziurtatzen den
2. Atzerrian bizi direnek aurkeztutako proiektuentzat, eskatzaileek hurrengoak aurkeztu beharko dute:
  - 2.1. NANA edo pasaportea
  - 2.2. Bizi den herrialdearen kontsulatu espainolaren inskripzio ziurtagiria
  - 2.3. Zerga Agentziaren ziurtagiria, non proiektu aurkezterakoan pertsona horren betebeharrak fiskal guztiak egunean daudela ziurtatzen den
  - 2.4. Gizarte Segurantzaren ziurtagiria, non proiektu aurkezterakoan pertsona horren lan-betebeharrak guztiak egunean daudela ziurtatzen den
  - 2.5. Espainian dagoen banku edo finantza-elkarte baten kontuaren titulartasunaren ziurtagiria, non ekarpen ekonomikoa jarriko den.
3. Herritarren taldea elkarte bat ez osatzekotan, eskatzaileek deialdi honetara aurkezteagatik baldintza hauek onartzen dituzte eta haien proiektua irabazle izatekotan elkarte batean bihurtzeko konpromisoa hartzen dute.

4. Bere ondorengo argitalpen digitalerako, proiektuak Estatuko edozein hizkuntzatan aurkeztu ahal izango dira, eta era berean gazteleraz formularioan betetako informazioaren kopia bat bidali beharko da IMPULSA-ko Talde Teknikoak aztertzeko.
5. Atzerrian bizi direnentzat, elkarte bat osatzeko baldintza taldeko kideek onartzen duten konpromisozko dokumentu batengatik ordezkatu da. Dokumentu honetan Talde Teknikoaren arabera eskatzaileek bete behar dituzten baldintzak finkatu dira, proiektuaren eta garatuko den herrialdearen ezaugarrien arabera.

## **6. PROIEKTUAK BALIOZTATZEKO IRIZPIDEAK**

1. Proiektuak balioztatzeke irizpideak honako hauek izango dira:
  - 1.1. Aurkeztutako proiektuak eta elkarte eskatzaileak baldintza guztiak betetzen dituzte eta ez dute ez Podemos-eko Etika Kodea husten, ez Podemos-eko estrategia politikoa kaltetzen.
  - 1.2. Proiektuaren justifikapena behar objektiboetan oinarritzen da.
  - 1.3. Bideragarritasun teknikoa definitutako helburuen, emaitzen eta faseen arteko koherentzian eta elkarrekikotasunean islatzen da.
  - 1.4. Aurrekontua partida guztietan zehaztuta dago, helburuekin koherentea da eta aurreikusitako jardueretara egokitzen da.
  - 1.5. Elkarrekin proiektua bere esperientzia, kudeaketa-gaitasuna eta eskura dauden baliabideen arabera gara dezake.
  - 1.6. Iraunkortasuna: proiektuaren diseinuak epe ertain edo luzera bere emaitzak iraunkorrak izatea ahalbidetzen du, IMPULSA-ren ekarpenagatik independente.
2. Hurrengo gomendio hauek proposatzen dira aurkeztutako proiektuen ezaugarri buruz:
  - 2.1. Saria proiektuaren aurrekontu totalaren %20a baino txikiagoa ez izatea gomendatzen da. Beraz, aurrekontu totala 15.000€ baino handiagoa ez izatea gomendatzen da.
  - 2.2. Proiektuak izaera berritzaile bat izatea gomendatzen da, ikuspuntuan eta gauzatzean.
  - 2.3. Proiektuak genero eta ingurumen ikuspuntuak izatea gomendatzen da.

## **7. GARRANTZITSUA**

IMPULSA-k finantza ditzakeen gastuak soilik proiektua aurrera eramateko behar diren jarduerenak izango dira. Hortaz, IMPULSA-k ez ditu honako hauek finantzatu:

1. Soilik elkarte baten mantentze eta funtzionamendu gastuak (ohiko egoitza baten alokairua, ura, telefonoa, elektrizitatea, eta abar) edota ezohizkoak (obrak, ohiko egoitzarentzako ekipamendua, etab.) dituzten proposamenak.
2. Soilik pertsonala kontratatzeko eskatzen duten proposamenak.
3. Proiektuarekin zerikusirik ez duten arduradunen dietak, egonaldiak eta bidaien gastuak.
4. Zor edo edozein finantza-operazioen ordainketa.

## 8. PROIEKTUAK AURRERA ERAMATEKO EPEA

Derrigorrezkoa izango da ekarpen ekonomikoa proiektuan sei hilabete\*<sup>2</sup>, baina lehen inbertitzea, zeinaren hasierako momentua, gehienez jota, lehen ekarpen ekonomikoa jaso eta hilabete batera izanik. Proiektu berriak aurkez daitezke, baita ekimen handiagoen parte diren proiektuak ere (kasu honetan beharrezkoa izango litzateke proiektu-esparru bat aurkeztea; eta behin behineko baldintzak betetzearen arduraduna proiektu irabazlea izango da).

Ezin izango dira ebazpen data baino lehenagoko gastuak gehitu, ezta hitzarmena bukatu ondoko gastuak ere.

## 9. PROIEKTU IRABAZLEEN HAUTAKETA SISTEMA

### Lehengo fasea: aurre-hautapena eta ebaluaketa (irailaren 8tik 22ra)

IMPULSA-ko Talde Teknikoak proiektuak aztertuko ditu aurkezpenaren baldintza formalak betetzen badituzte, Etika Kodea errespetatzen badute eta indexatu diren esparruak zuzenak badira zehazteko. Edozein aldaketarako akatsen epe bat zabalduko da, zeina deialdiaren egutegian islatuta dagoen.

Autonomia erkidego bakoitzean IMPULSA 2 kategoria eraiki dadin, beharrezkoa izango da gutxienez Talde Teknikoak balioztatutako bost proiektu egotea. Kopuru honetara heltzen ez bada, beste autonomia erkidego batekin proiektuekin batuko dira eta bozketa beran lehiatuko dira.

---

<sup>2</sup> Salbuespenetan eta justifikatuz, proiektu baten iraupen epea luzatu ahalko da.

**Bigarren fasea: bozketak (urriaren 13tik 18ra)**

Bozketetan parte hartzen duten Podemos-en inskribaturik dauden pertsonak – sistema ireki, demokratiko eta garden baten bidez – kategoria honen proiektu irabazleak hautatuko dituzte. Bozketa dualeko sistema izango da, fase bakar batean, non proiektu irabazleak hautatuko diren hainbat aldarapeneko hautapen mekanismo honen bidez.

**Hirugarren fasea: emaitzak (urriaren 22a)**

Urriaren 22an bozketen emaitzak eskuragarri egongo dira <http://podemos.info/impulsa/> web orrian.

**10. EMANDAKO LAGUNTZAREN FORMALIZAZIOA**

1. Sarien banaketaren ondoren, 25M Institutuak eta proiektu saridunen elkarrekin lankidetzaren hitzarmen bat onartuko dute, oinarrien baldintza eta indarrean dagoen legedia kontuan hartuz. Azpimarratzekoa da hitzarmen hau legalki osatutako elkarrekin soilik sinatu dezaketela.

Horregatik, elkarrekin bat osatzen ez duten kolektiboek hau sortzeko behar diren tramiak martxan jarri beharko dituzte hitzarmena sinatu baino lehen.

Dokumentu honetan bi aldeek eskubide eta betebeharrak zehaztuko dira, eta ondorengo atalak:

1. Proiektuaren hasiera eta amaieraren epea
  2. Jasotako laguntzaren zenbatekoa
  3. Fakturen egozte epea
  4. Ordainketa modua
  5. Proiektuaren jarraipena
2. Atzerrian bizi direnentzat eta atzerriko proiektuentzat, dokumentu hau atzerriko proiektuaren garapen-taldearen kide diren eta konpromiso dokumentua sinatu dutenek onartuko dute. Konpromiso dokumentu horretan IMPULSA-ko Talde Teknikoak erabaki dituen baldintzak aurkitzen dira, proiektuaren eta atzerriko herrialde horren ezaugarrien arabera.

3. IMPULSA kategoriaren irabazleek ekarpen ekonomikoaren %80a gehienez jota sei hilabeteko epe batean jasoko dute, emaitzak atera zirenetik eta lankidetzaz hitzarmena sinatu eta gero. Gainerako ekarpena emango da proiektuaren azken memoria eta gastuen justifikapena eman eta IMPULSA-ko Talde Teknikoak proiektu osoa balioztatu ondoren.
4. IMPULSA-ko Talde Teknikoari eskatutako eta oinarri onetan zehaztutako dokumentazioa eman ezean, edo memoriak proiektuaren betetzea ez frogatzekotan, elkarte eta pertsona eskatzaileek ekarpen ekonomiko osoa bueltatu beharko dute.
5. Herritar Kontseiluek, Zirkuluek eta Parte-Hartzeko Taldeek honetan dabilen pertsonen jardutea erraztuko dute, eta espezifikoki Podemos-eko Estatuko Partaidetza Taldeak eskatutako kasuetan, ebaluazio periodikoko talde bat osa ahal izango da, helburua era garden batean kasu horien garapenari buruz informatzea izanik.



## III. KATEGORÍA IMPULSA 3: PODEMOS IMPULSA

### 1. HELBURUA

Kategoria honentzako guztira 100.000 € erabiliko dira, erkidego autonomikoen artean banatuak. Kontseilu Autonomiko Hiritarrek, beraien talde parlamentarioekin batera, edo Batzarkide Taldeekin (Euskadin), kategoria honen premioak emango dituzte - hauen lanaren errekonozimendu bezala eta beraien preferentzia politiko-estrategikoen arabera - asoziazio, fundazio, kolektibo, plataforma edo mugimendu herritar ezberdinei, hauek kausa sozial baten alde lan egin ezker.

### 2. PROZEDIMENDUA ETA ESKAEREN EBAZPENA

Hautaketa autonomi erkidego bakoitzean egingo da. Talde Parlamentarioak eta Kontseilu Herritar Autonomikoak beraien artean beraiek uste duten inizatibei dirua banatzeko kordinatu daitezela gomendatu egiten da. Sariaren minimoa 1000 €koa izango da. Autonomi Erkidegoaren diru-kopuruak ahalmentzen badu, Talde Parlamentarioek eta Kontseilu Herritar Autonomikoek banan aukeratu dezakete, asignazioaren guztizkoa parte berdinetan banatuz. Salbuespen bezala, Galizian eta Kataluinan erabaki hau Kontseilu Herritar Autonomikoak hartuko du bakarrik, eta Euskadin Kontseilu Herritar autonomikoak eta hiru Batzarkide Taldeek (kontuan hartuz asignazioa zatitu daitekeela, beti banatzeko minimoa errespetatuz).

### 3. EMANDAKO SARIAREN FORMALIZAZIOA

Sariaren ebazpena argitu ondoren, urtarrilaren 22a baino lehen, sariduna izango den pertsona edo erakundeak [proyectoimpulsa2@podemos.info](mailto:proyectoimpulsa2@podemos.info) -ra mezu bat bidali beharko du, hurrengo agiriak eta datuak erantsiz.

1. Kolektibo edo erakunde sarituaren ordezkaria denaren izena eta abizena.
2. Kolektibo edo erakunde sarituaren ordezkaria denaren NANA.
3. Erakundea legalki osatuta egonez gero, registroan egindako inskripzioaren ebazpena atxikitu eta Identifikazio Fiskalaren Txartela.





4. Erakundearen ordezkariaren edo pertsonaren kontuaren CCC zenbakia eta bakuaren agiria bere titularitatea egiaztatuz.
5. IMPULSA proiektuaren talde teknikoak aproposa ikusten duen edozein dokumentu.

Gero, erakunde eta pertsona saridunek posta-elektronikoz 25M Intitutuak emandako diru-sarreraren ziurtagiria [proyectoimpulsa2@podemos.info](mailto:proyectoimpulsa2@podemos.info) -ra bidali beharko dute.

#### 4. BALDINTZA ETIKO ETA LEGALAK

1. Podemos-eko Berme Demokratikoen Komisioa eta IMPULSA-ko Talde Teknikoak egiaztatuko dute saritutako erakundeak Podemos-en kode etikoa betetzen dutela, eta base hauen baldintzekin.
2. Saritutako erakundeak ezin du diru irabazi-asmorik izan.
3. Lehen edizioan saritutako erakundeak ezin dira izango bigarren edizioan sarituak izan.
4. Insituzioetako ordezkari politikoek edo Kontseilu Herritarren kideek ezingo dute ordezkari legala edo zuzendaritza batzarraren kideak diren erakundeak proposatu saria eskuratzeko.



## IV. DEIALDIRAKO BALDINTZA OROKORRAK

### 1. 1 ETA 2 KATEGORIETAKO EGUTEGIA

- Irailaren 8tik 22ra: proiektuak aurkezteko epea
- Zuzenketa epea Irailaren 25ean zabalduko da eta Urriaren 1ean itxiko da
- Urriaren 9ra arte: Proiektuen berriskupena eta baliozkotzea
- Urriak 13: Balioztatutako proiektuen aurkezpena
- Urriaren 13tik 18ra: Bozkaketa
- Urriak 22: Azken emaitzen aurkezpena

### 2. TALENTU BANKUA

Diru-kopuruaz gain, proiektu irabazleek Podemos-eko banku talentua eskuragai izango dute, non aurkituko dute euren proiektuak garatzeko profilak. IMPULSA-ko Talde Teknikoak irabazleen eta talentuen arteko harremanak artikulatu eta gainbegiratuko ditu, Podemos-eko Kode Etikoa gainditzen duen portaerak ekiditeko. Bilaketak beti egingo dira Datuak Babesteko Lege Organikoaren arabera, eta Podemos-eko Estatuko Parte-hartze taldeak izango da derrigorrezko bitartekaria eskaintzale eta eskatzaileen artean.

### 3. HEDAPENA

Proiektu guztiak IMPULSA-ko logotipoa txertatu behar izango dute bere sustapen-materialetan, argiltapenetan, etab. IMPULSA Proiektuko logotipoa hurrengo linkean aurkitu daiteke: <https://files.podemos.info/I9BzrDA4Uy>.

Proiektuak ikusgai ahal izateko, bere garapenari buruz informatzeko, partekatu eta ekime-nak eztabaidatzeko, eremu bat zabalduko da non partehartzaileek eztabaidak proposatu eta iradokizunak sartu ditzakete. Eremu honek ere, partehartzaileek bere aurrerapenak jakinarazteko arlo berezi bat ere izango du. IMPULSA-ko Talde Teknikoak proiektuak balioztatze-ko kontutan hartuko du Eremu honetan parte hartzea

Halaber, Zirkuluak, Kontseilu Herritarrak parte-hartze arduradunen eta Partehartze Ekintzetako Taldeetan (PET) izena eman dutenen bidez, parte hartu nahi duten lekuko aktoreei deialdia zabaldu eta hedatuko diote.

#### 4. ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

1. Podemos, proiektu bat bozketa publikora ez aurkezteko edo laguntza ekonomikoa (parte bat edo guztiz) bertan behera usteko eskubidea gordetzen du, jadanik aprobatauta izanda ere, ondorengo kasuengatik:
  - 1.1. Proposatutako aurkezpen formatura ez da egokitu.
  - 1.2. Eskatzen diren kasuetan, Zirkulu baten berma ez aurkeztea edo horren faltsukeria frogatua izatea.
  - 1.3. Eskatzaileek (edo kontrako alderdiek) euren estatutuetan edo beste edozein materialean Podemos-en Kode Etikoaren aurka doazen edozein elementu.
  - 1.4. IMPULSA-ko Talde Teknikoak, Irabazi-asmoko elkarteek aurkeztuak edo proiektuaren kostuen ehuneko bat irabazi-asmoko elkarte batera pasatzeak, proiektuaren helburuekin bat ez datorrela balioesten badu.
  - 1.5. Eskatzaileek ez badituzte berariazko baldintzak betetzen proiektu motaren arabera, ez badute informazio osagarria emansten edo ez dituzte akatsak zuzentzen, baldintza hauen 4. puntuak ezartzen duenaren arabera, proiektuaren bideragarritasun tekniko, ekonomiko edo juridikoa frogatzeko IMPULSA-ko Talde Teknikoak emandako epearen barruan.
  - 1.6. IMPULSA-ko Talde Teknikoak proiektuen hasiera eta laguntzen formalizaziorako dokumentu, agiri, hitzarmen eta konpromisoak ez badituzte izenpetzen.
2. 3.000€ko laguntza limitea duten proiektuetan, eskatzaileak konprometitzen dira proiektuaren ebaluazio bat entregatzen ezarritako epearen arabera. Proiektuari hasiera eman baino lehen, konpromiso erabakigarri bat sinatuko dute zeinen arabera, proiektu ez bada garatu, jasotako diru-kopuru osoa bueltatzen edo Talde Teknikoak erabakitzen duen ehunekoa.
3. IMPULSA zure herrialdea kategoria 1 duten proiektuetan sinatutako konpromiso erabakigarri bat zeinen arabera, ebaluazioak denboratik kanpo eta forma barik entregatzeak, Talde Teknikoaren aburura, entregan suspentsioa edo emandakoa bueltatzea suposatuko luke.
4. Behin proiektu irabazleak hautatuak izanda, IMPULSA-ko Talde Teknikoak baldintza zehatza ezarri ditzake proiektuaren arabera, dokumentazio osagarria eta zuzenketak eskatu proiektuaren bideragarritasuna ziurtatzeko helburuarekin.
5. Irabazle atera den proiekturen bat baliogabetua izaten bada, hauek ezabatuko dira eta finantziarioa bozketen ordena jarraituz emango da.
6. Ezarritako baldintza minimoen araberrako balioztatzea Talde Teknikoak egingo du, eta honek Berme Demokratikoen Komisioaren kide baten presentzia eskatu dezake proiektuak oinarriari eta baldintza etikoei egokitzen direla arduratzeko.

7. Deialdi honetan parte hartzeak baldintza guztien (oinarri hauetakoak eta berezie-takoak) onarpena suposatuko du. Baldintza hauetariko bat hausteak laguntzaren ezez-tatzea eta hau itzultzea suposatuko du.
8. Podemos-eko Parte-hartze sailak oinarriak aldatzeko eskubidea gordetzen du, baita sariak (aldatzea edo kentzea), aldaketak deialdi originalarentzat erabilitako baliabide berdinen bidez argitaratzeko konpromisoa hartuz.
9. Eskatzaileek, onartuko dute bai Podemos eta bai 25M Institutua salbuesten dute bete-beharretatik partaideren bat autore edo marka eskubideak hausten baditu, eta horrekin batera proiektua aurrera eramateak erantzukizun zibilari loturikoak. Ekimenaren ara-bera, baldintza partikularretan eskatu daiteke erantzukizun zibileko aseguruia egitea.
10. Esandako kontratuarekin hauste larria egotekotan, Podemos-en kode etikoa hausteko-tan, Talentu Bankuko helburu eta partaideen gehiegikeria egotekotan, legez kontrako ustezko komisioa edo auzi zibila proiektuko bide edo helburuei buruz edo ihauak au-rrera eramateko bide edo helburuak aldatu, honen hautapena sortarazi zutenak, Pode-mos-eko Parte-hartze Sailak nahi beste txosten eskatu ditzake proiektuaren garapenari buruz eta, hauste larria izan bada, honen garapena gelditu ahalko du modu unilatera-lean, dirua itzultzeko eskatu konpromiso erabakigarriaren arabera irizpide etikoei ja-rraituz, dirua akordioaren arabera itzultzea eskatu, Podemos eta 25M Institutuak bere kabuz artu ditzaketen neurriekin gatazkan sartu barik, zeinek beren legitimitate proze-sal propioa daukate.
11. Proiektuaren garapenetik eta diru laguntzetatik etorritako lan, zerga eta finantza bete-behar guztiak proiektuaren tutore eta titularraren kargura joango dira beti.
12. Podemos-ek, edozein momentutan, deialdia gelditzeko eta diru-laguntza suspendit-zeko eskubidea gordetzen du proiektua bideraezina suertatzen baldin bada ikuspuntu tekniko, ekonomiko edo legaletik, edozein motiborengatik.

## **5. DATU PERTSONALEN BABESA**

1. Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako 1999/15 Lege Organikoaren arabera, par-te-hartzaileei jakin arazi egiten zaie erregistro galdetegian ematen dituzten datu pertsonalak "Impulsa" fitxategian sartuko direla, honen arduraduna Podemos alderdi politikoa izanik, G86976941 CIF-duna, selekzio prozesua eta proiektuaren garapena gestionatzeko erabiliko dituen.
2. Parte-hartzaileen datu pertsonalak ez zaizkie emango hirugarren pertsonari, ez eta erakunde publikoei beraien baimenik gabe, ez baldin bada agintari datu hauek ema-terko obligazioa jartzen duenean legeak.

3. Parte-hartzaileak onartu egiten du eta espreski uzten bere datu pertsonalen erabilera eta jarritako helburuetarako mezuen eta komunikazioen harrera.
4. Parte-hartzaileak aitortu eta ziurtatu egiten du bere proiektuaren erregistro-galdetegian emandako datu pertsonalak benetakoak, zehatzak, osoak eta eguneratuak direla, datu pertsonalen babesari buruzko agiri hau irakurri duela eta bere edukiarekin bat datorrela.
5. Podemos-ek bete egiten ditu 2007/1720 Errege-Dekretuak, Abenduak 21-ekoak, exijitzen dituen datu pertsonalen babeserako ziurtasun-neurri guztiak, zeinaren bitartez onartatu egiten da izaera pertsonaleko datuen babeseko 1999/15 Lege Organikoaren, Abenduak 13-koaren Garapen-Araudia.
6. Heltze, aldatze, izte eta aurre-egite eskubideak erabiltzeko, parte-hartzaileek honako helbidera jo dezakete posta elektronikoz: [lopdpodemos.info](mailto:lopdpodemos.info) eta beraien NAN edo identifikazio dokumentu legalaren kopia bat atxikitako artxibo bezala jarri.



# ANEXO I

## IMPULSAKO 2. EDIZIOAREN HIRU KATEGORIEN ARTEKO AURREKONTU OSOAREN BANAKETA

### 1. KATEGORÍA IMPULSA 1: ZURE HERRIALDEA BULTZATU

Estatu mailan bi proiektu bultzatuko dira 50.000€-rainoko laguntza bana izango dutelarik.

### 2. KATEGORÍA IMPULSA 2: ZURE INGURUNEA BULTZATU

Ondorengo taula orientagarria da soilik, zeren, Oinarrietan adierazten den moduan, 33 proiektuen osotasuna autonomia erkidegoen artean banatuko da, gutxienez, autonomia erkidego horrek balioztatutako bost proiektu existitzen badira. Ez badira existitzen, beste autonomia erkidego batekoekin elkartuko dira eta bozketa berdinean lehiatuko dira. Laguntza 3.000€-rainokoa da proiektu bakoitzeko. Geratzen den soberakina IMPULSA-ko hurrengo edizioetarako gordeko da.

	Autonomia Erkidegoko irabazle atera diren proiektuen kopurua	Autonomia Erkidegoko emandako kopurua
Andaluzia, Ceuta y Melilla	4	12.000,00 €
Aragoi	2	6.000,00 €
Asturiasko Printzerria	2	6.000,00 €
Balears, Illes	2	6.000,00 €
Kanariak	2	6.000,00 €
Kantabria	1	3.000,00 €
Gaztela eta Leon	2	6.000,00 €
Gaztela - Mantxa	1	3.000,00 €
Catalunya	3	9.000,00 €
Comunitat Valenciana	2	6.000,00 €
Extremadura	1	3.000,00 €
Galiza	2	6.000,00 €
Madrilgo Erkidegoa	3	9.000,00 €
Murtziako Eskualdea	2	6.000,00 €
Nafarroako Foru Erkidegoa	1	3.000,00 €
Euskal Autonomi Erkidegoa	1	3.000,00 €
Errioxa	1	3.000,00 €
Atzerria	1	3.000,00 €
<b>Guztira</b>	<b>33</b>	<b>99.000,00 €</b>

### 3. KATEGORÍA IMPULSA 3: PODEMOS IMPULSA

	<b>Autonomia Erkidegoko emandako kopurua eta Europarlamentari taldea</b>
Andaluzia, Ceuta y Melilla	12.500,00 €
Aragoi	6.000,00 €
Asturiasko Printzerria	5.000,00 €
Balears, Illes	4.500,00 €
Kanariak	5.000,00 €
Kantabria	3.000,00 €
Gaztela eta Leon	5.000,00 €
Gaztela - Mantxa	4.500,00 €
Catalunya	10.500,00 €
Comunitat Valenciana	7.500,00 €
Extremadura	3.500,00 €
Galiza	6.000,00 €
Madrilgo Erkidegoa	10.500,00 €
Murtziako Eskualdea	4.500,00 €
Nafarroako Foru Erkidegoa	3.500,00 €
Euskal Autonomi Erkidegoa	5.000,00 €
Errioxa	3.500,00 €
Europarlamentari taldea	5.000,00 €
<b>Guztira</b>	<b>105.000,00 €</b>